



■ BERTSOLARITZA

Autografo eta 'photocall'-a gaur, Lujanbiok

Hernaniko Bertso Eskolan egongo da Maialen Lujanbio, 11:00etatik 13:00etara, posterrak eta argazkiak sinatzen. Gainera, txapela ondoen geratzen zaion gaztetxo, apopilo hartuko du.

MAIALEN Lujanbioren jarraitzaileek zita daukate gaur, Hernaniko Bertso Eskolan (Larramendi kalea 11, behe). Bertan egongo da bertsolari hernaniarra, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara; eta posterrak, argazkiak, postalak... sinatuko dizkie, bertaratzen direnei.

Hori bakarrik ez, *photocall* bat ere jarriko dute, Lujanbioren beraren irudiarekin txapela eta guzti, herritarrek burua jarri eta beraiek azaltzeko txapeldun gisa argazkian.

Eta bideo emanaldi bat ere izango da momenturo: Bertsolari Txapelketa Nagusiaren

finalean, Lujanbiok kantatutako bertso guztien bideoak jarriko dituzte.

8-14 urte bitarteko gaztetxo bat, Lujanbioren ikasle

Gainera, BECen jantzi zuen txapela ere eramango du Maialen Lujanbiok Bertso Eskolara; eta probatzeko aukera emango die, 8-14 urte bitarteko gaztetxoei. Izan ere, txapela ondoen geratzen zaiona, apopilo hartuko du Lujanbiok, bere ikasle gisa, Hernaniko hurrengo txapelduna izan dadin abilezia eta sekretu guztiak erakusteko. ■



Txapela eta guzti egongo da Maialen Lujanbio gaur, Bertso Eskolan.

■ ANTONI EGAÑA ARAMBURU 100 URTE

«Zahartu egin behar eta... baina oso ondo nago!»

100 urte bete zituen Anttoni Egaña Aramburuk asteartean, eta omenaldia egin zion Udalak.

«EDOZEINEK ez ditu betetzen 100 urte! Harro egoteko modukoa da», zioen Anttoni Egaña Aramburuk, asteartean. Eta halaxe zegoen, harro, berak bete zituelako 100 urte, abenduaren 26arekin: «zahartu egin behar eta... baina oso ondo nago!», azaldu zien irribarretsu, bisitan joan zitzaizkionei.

Bisitarien artean izan ziren Udal ordezkariak ere; Luis Intxauspe alkatea eta Koro Etxeberria zinegotzia. Omenaldia egin zioten, lore sorta bat eskainiz. «Asko eskertzen dizuet denoi, gaur denak etorri zarete bisitan. Eta ez naiz nekatzen bisitak jasotzeaz, oso kontentua nago, enkantadisimal!».

Hernanin eman du bere

bizitza, eta Egaña familiaren taberna izan du lantoki eta bizitoki. Ereñotzun ezkondu zen, baina astigartarra zuen senarra. Bost seme-alaba ditu, eta 74 urterekin alargundu zen.

1908an hartu zuen taberna bere ama Juanitak, logelak ere bazituela. Txirritak ere hartu zuen ostatu bertan, eta pasarte ugari daukate harekin; San Joan jai batzuetan komun berria jarri, eta Txirrita moldatzen ez zela eta, atea puskatu behar izan zutenekoa, adibidez. Bertsoak jarri zizkion Txirritak Juanitari.

Anttoni, sei anai-arrebetan gazteena, sukaldari aritu zen bertan, eta oso ezagunak ziren bere tripaki eta kroketak. 1986



Koro Etxeberria, Anttoni Egaña eta Luis Intxauspe, asteartean.

urtean itxi zuten taberna, baina bertan elkartu zen familia osoa asteartean, berriro, urterurren borobila ospatzeko.

Antzerki munduan ere pau-

soak eman zituen Anttonik, «burua oso sano» dauka, eta «presarik gabe, beti korrika» ibiltzen da, «purrustaka», konstatu zuen barrez. ■

■ ANTZERKIA

'Go!azen 4.0', gaur

Haur eta gaztetxoentzat antzerki saioa izango da gaur, Biterin: *Go!azen 4.0*. Bi saio eskainiko dituzte, 16:00 eta 18:00etan, 7-12 urtekoentzat, euskeraz. Sarrerak aspaldi bukatu ziren. ■

■ ERREGE MAGOAK

Pajeen trajeak hartzeko, gaur

Gaur daukate zita Biterin, Errege Magoen kabalgatan paje bezala atera nahi duten haurrek. Trajeak banatuko dituzte, Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. ■

■ DOBERA-KRONIKA

Hiru ipuin bilduma zozketan, gaur

Bigarren saria lortu zuen Iñigo Legorburu hernaniarra, *Areago. Istorioak belarrietara kontakizunak* 2 ipuin lehiaketan. Eta saritutako ipuinekin eta beste hainbatekin, bilduma edo liburua osatu dute antolatzaileek. Liburuaren hiru ale zozketatuko dituzte Doberak eta Kronikak, Legorburuk oparituta. Horietako bat, bazkideen artean; eta beste biak, parte hartzen duten irakurleen artean: www.kronika.eus web orrian iruzkina egin; edo bulegotik pasa eta izena eman. ■

■ UDALA

Piroteknariak ez, Kaxkoan

Abenduaren 31 gaueko piroteknaria kontuak direla eta, segurtasuna bermatu nahian, hainbat erabaki hartu ditu Udalak: 15 minutura murriztea erabilera (00:00-00:15 bitartean); piroteknaria debekatzea Kaxkoan; eta Kaxkotik kanpo, eremu irekietan soilik baimentzea. ■

■ GAZTELEKUA

Sukaldaritza tailerra, gaur

Sukaldaritza tailerra egingo dute gaur, goizeko 11:00etan hasita, Gaztelekuan. 12 urtetik gorako gaztetxoentzat da. Urtearrilaren 3an, berriz, eskalatzaera joango dira Pio Barojara, eta Gaztelekuan apuntatu behar dira, 3 euro eramanda. ■

Garayar autobusak
Sorgintza auzoa, Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 65 58 Fax: 943 33 12 08
mgarayar@autobus-garayaras.es

Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)
Autobus zerbitzuak Linea erregularak

Hernani • Donostia
Aiete • Urdeta • Andoain

Allianz ASEGURUAK

- iztza
- istripuak
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- onak
- andura zibila
- finantz asagunak
- inbertelak

agustin ezponda irizar agentzia

Nagusia, 13
Tel.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Giro iluna eta euritsua izango dugu gaur ere. Zenbait fronte igaroko dira, eta haizea zakar ibiliko da, mendebaldetik, arratsaldean bereziki. Temperatura, berdintsu: **Min.6° / Max.10°**
BIHAR Euria egiten jarraituko du bihar, batez ere goizean. Gero, ostarteak zabalduko dira pikkanaka. Haizea ipar-mendebaldetik sartuko da bizi, eta temperatura epeldu egingo da. **Min.8° / Max.14°** (euskalme)

PORTU AUZOA

Gabonak girotzeko, astebetean ekintzak Portuko auzotarrek

Karaoke Festarekin hasiko dira bihar, eta erroskilla tailerra, mendi buelta... ere izango dira.

GIRO ederrean eta ekintzaz ekintza igaroko dituzte Gabonak, Portuko auzotarrek. Atzo eman zioten hasiera, prestatu duten ekintza sorta zabalari, Lehen Gizakiaren tailerrarekin: ehizan saioa, sua eta margo-keta egin zituzten.

Eta bihartik datorren ostegunera, beste bost ekintza izango dituzte. Karaoke Festa antolatu dute biharko, arratsaldeko 18:00etan hasita, haur eta gaztetxoentzat. ||



Aurreko larunbatean, Santo Tomas ospatu zuten Portu auzoan.

GABONETAKO EKINTZAK PORTUN
BIHAR, ostirala
18:00, Karaoke Festa, umeentzako.
ABENDUAK 31, igandea
10:30, Santa Barbaran mendi buelta, Plazatik abiatuta.
URTARRILAK 2, asteartea
17:30, Umeentzako pelikula emanaldia.
URTARRILAK 3, asteazkena
16:30, Erroskilla tailerra eta merendola.
URTARRILAK 4, osteguna
17:30, Eriz Magoaren emanaldia.

ESKU PELOTA

Bina final jokatu dituzte, Arrietak eta Lizeagak

Gipuzkoako Txapelketaren finalean izango da Markel Lizeaga, eta Antton Pebet torneokoan Ioritz Arrieta; eta biak elkarrekin, Altzako torneokoan.

EMAITZA ederrak lortu zituzten pelotari hernaniarrek, aurreko asteburuan; bereziki, Ioritz Arrietak eta Markel Lizeagak. Bina final jokatzeko sailkatu dira, bi pelotari hernaniarrek.

Lizeagak, hasteko, Gipuzkoako Txapelketaren finala jokatu du, buruz buru, semifinalean Muguruzari nagusitasunez irabazi ondoren (22-9).

Arrietak, berriz, Villabonako Antton Pebet torneoko finala jokatu du, Zezeagarekin batera, Exposito eta Telletxeari irabazita (22-14). Eta biak elkarrekin, Arrieta eta Lizeaga, Altzako torneoko finalean izango dira, semifinalean Loidi eta Gorrotxategiri irabazita (22-8).

Ez ziren hain onak izan emaitzak trinketean, Gipuz-

koako Txapelketan. Galdu egin zuten ligaxkakako partidua erabakigarria, Ekaitz Cisneros seniorrak (31-40), eta Aratz Tejedor kadeteak (16-30), eta ezin izan dute azkeneko fasera sailkatu. Eta galdu egin zuen Iñigo Labaka seniorrak ere (24-40), eta multzoko azkeneko sailkatu bezala bukatuta, Igo mailari eusteko lehiatu beharko du. ||

PALA

Zugasti-Urdangarin eta Irazustabarrena, txapeldun!

Bi final jokatu zituzten palista hernaniarrek, aurreko asteburuan; eta baita biak irabazi ere! Maider Zugastik eta Garazi Urdangarinak irabazi egin zuten Ereñotzun, Gipuzkoako finalean, jubeniletan. Partidu handia jokatu, 30-22 irabazi zioten Aiari, pronostiko guztien kontra. Amaia Irazustabarrenak, berriz, Emakumea Pilotari txapelketako finala irabazi zuen, Altzako Mari Muruarekin, Garmendia eta Arri-llagaren kontra (25-20). ||



Maider Zugasti eta Garazi Urdangarin, Ereñotzun, txapela eta trofeoekin.

ESNE BELTZA



Esne Beltzak 10 urteak ospatzeko egindako aurreko kontzertua.

Are lagun gehiago, 10 urteak ospatzeko

Ostiralean eta larunbatean, bietan eman du kontzertua Esne Beltzak Biterin, 10 urte egin dituela ospatzeko. Gonbidatu bereziak izan zituzten oholza gainean, 10 urte lagun artean izenburupean antolatutako saio berezietan; are lagun gehiago bildu ziren, oholza aurrean, gozatzeko. ||

KIROLDEGIA

Bingo solidarioa bihar, kiroldegian

Gabonetako ekintzen artean, bingo solidarioa antolatu dute bihar, hiru saiotan; 11:00etan, 11:30etan eta 12:00etan. Elikagai Bankurako janari bilketa egitea da helburua, eta horregatik, janaria eramatearen truke banatuko dituzte kartoiak, parte hartzeko. ||

SOS ARRAZAKERIA

Zurrumurruen aurka, bertso saioa gaur

ZAS! Zurrumurruen aurkako sareak antolatuta, bertso saioa izango da gaur, Donostiako Antzoki Zaharrean, jatorri, etnia eta arraza desberdinetako pertsonen inguruko zurrumurruek ez sinistea aldarrikatzeko. Saioa 17:30etan hasiko da, eta puntako zortzi bertsolari igoko dira taula gainera, Hernaniko bertso eskolako hiru tartean: Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Alaia Martin, Sustrai Colina, Jon Maia eta Maddalen Arzallus. Sarrerak Kutzaren webgunean eta Donostia Kulturako lehiatilan salgai, 10 euroan. ||

HERNANI ESKUBALOI TALDEA

Saskiaren zozketan saritua, 1198 zenbakia

Abenduaren 21ean zozketatu zuen Hernani Eskubaloi Taldeak, bere «saski erraldoia». Eta zenbaki saritua 1198 izan da. Irabazleak, urtarrilaren 21era arte dauka epea jasotzeko, taldeko arduradunekin harremanetan jarrita. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA
Mercedes Ibiricu
Arenaza

Betiko izango zaitugu gogoan.

ZURE SENIDEAK

Hernanin, 2017ko abenduaren 28an

IRAGARKI MERKEAK

Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo Labaka kalean, Hibai taberna.
Deitu: 943 21 78 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)